

Gizakien salerosketa: antzinako fenomenoa bizirik XXI. mendean

JOSUNE LÓPEZ RODRÍGUEZ

“Kooperatibismoa, fiskalitatea, sustapena, lan-harremanak eta gizarte babesa”
ikerketa-taldeko ikertzaile postdoktorala

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 09/04/2018

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 12/11/2018

Laburpena: Artikulu honek azaltzen ditu gizakien salerosketaren kontzeptua eta esanahia, batez ere, Zigor Zuzenbidean, XXI. mendean. Era berean, gizakien salerosketa eta bestelako fenomenoak aztertzen ditu, hala nola, etorkinen legez kontrako trafikoa, immigrazio klandestino, prostituzioa eta esklabotza. Arazoaren jatorria eta eragin faktoreak ere azaltzen dira, egoera horri aurre egiteko ildo nagusiak barruratuz.

Gako-hitzak: Gizakien salerosketa, Zigor Kodea, eragin faktoreak.

Resumen: El artículo plantea cuestiones en relación al significado y características desde el punto de vista del Derecho Penal en el siglo XXI, así como la relación de este proceso de la trata de seres humanos con otros fenómenos sociales tales como el tráfico ilegal de inmigrantes, la inmigración clandestina, la prostitución o la esclavitud, ahondando en el origen del problema y sugiriendo las líneas generales para hacer frente al mismo.

Palabras-clave: Trata de seres humanos, Código Penal, factores de riesgo.

Abstract: This work is about different questions about the meaning and characteristics of Penal law in the 21st Century, as well as the relation between trafficking in human beings and other social phenomena, such as illegal immigrants trafficking, clandestine immigration, prostitution or slavery, deepening in the source of the problem, as well as suggesting the general criteria to face these problems.

Key-words: Trafficking in human beings, Penal law, risk factors.

AURKIBIDEA: I. SARRERA. II. GIZAKIEN SALEROSKETAREN ESANAHIA XXI. MENDEAN. III. GIZAKIEN SALEROSKETA PROZESU GISA: OSAGAIK. 1. Egintza. 2. Bideak. 3. Xedea. IV. GIZAKIEN SALEROSKETA ESPAINIAKO ZIGOR KODEAN. 1. Oinarrizko tipoa. 1.1. *Subjektu aktiboa eta subjektu pasiboa*. 1.2. *Objektu materiala*. 1.3. *Portaera tipikoa*. 2. Adingabeen salerosketaren berariazko tipoa. 3. Larriagotutako tipoa. 3.1. *Subjektu pasiboarekin zerikusia duten larriagotutako tipoa*. 3.2. *Subjektu aktiboarekin zerikusia duten larriagotutako tipoa*. 4. Pertsona juridikoen erantzukizun penala. 5. Prestatze-egintzak. V. GIZAKIEN SALEROSKETA BESTE FENOMENOEN AURREAN: EZINBESTEKO BEREIZKETA. 1. Gizakien salerosketa eta Migranteen legez kontrako trafikoa. 2. Gizakien salerosketa eta Immigrazio klandestino. 3. Gizakien salerosketa eta Prostituzioa. 4. Gizakien salerosketa eta Esklabotza. VI. ERAGIN-FAKTOREAK: ARAZOAREN JATORRIA. VII. ONDORIOAK: FENOMENOARI AURRE EGITEKO ILDO NAGUSIAK. VIII. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Gizakien salerosketa fenomeno berria ez dela jakin badakigu; zinez, praktika hau antzinatik existitu da eta, mendeetan zehar, legearen babesa izan du. Oro har, gizakien salerosketari buruz mintzatzean, XVI. eta XIX. mende arteko esklabo beltzen salerosketa burura datorkigun arren, esan behar da, fenomeno hori Historiaren hastapenetik existitu dela.

Alabaina, XX. mendean, giza eskubideen aldeko mugimenduak bultzatuta batik bat, gizakien salerosketa debekatu eta ezabatzeko lehenengo tresna juridikoak aldarrikatu ziren. Ordutik hona, hainbat izan dira praktika hau abolitzeko ahalegin juridikoak.

Gaur egunean, zentzu juridikoan behintzat, gizakien salerosketa erabat debekatuta dago nazioarte-mailan. Edonola ere, debeku teorikoa ez da errealitatean gauzatu, hau da, ez da lortu praktika hau benetan eraztea. Tamalez, gizakien salerosketa bizi-bizirik dago gure artean eta, globaliza-

zioaren ondorioz, azkar zabaldu da munduko bazter guztietara. Beraz, antzinako jatorria duen XXI. mendeko praktika kezkarriaz ari gara.

Gauzak horrela, fenomeno hau sarri askotan behinolako arazotzat hartzen bada ere, gure begien aurrean gertatzen ari da. Gaur egunean, gizakien salerosketa munduko Estatu guztietan presente dagoela ziurtatu daiteke. Haatik, fenomeno ikusezina da gure artean. Hain zuzen ere, praktika honen legezketasunik ezak, beraren esanahia eta norainokoaren gaineko ezjakintasunak, biktimen beldurrak eta tresna juridiko eraginkorren gabeziak, beste inguruabar batzuen artean, eragozten dute gizakien salerosketa benetan antzematea. Oro har, Nazio Batuek emandako informazioaren arabera, urtero, gutxienez 2,5 milioi pertsona gizakien salerosketaren biktima dira (horietatik 1,2 milioi adingabeak direlarik)¹. Hori bai, Nazio Batuen Drogaren eta Delituaren aurkako Bulegoak argitu du identifikatzen den biktima bakoitzagatik, beste hogeit hamar biktima inguru daudela identifikatu gabe². Hortaz, zifra erreala oraindik kezkarriagoa izan behar da.

Hori dela eta, egungo gizakien salerosketari aurre egiteko nahitaezkoa da bide eraginkorrak zehaztea. Zeregin hau gauzatzeko, aurrena, gaurko esanahia eta norainokoa ezagutu behar dira. Horregatik, nazioarte-mailan erreferentziatzen hartzen den definizio juridikoa aztertuko dugu lan honetan eta, horrekin batera, Espainiako Zigor Kodeak gizakien salerosketaren inguruan aurreikusten dituen tipoak azalduko ditugu. Behin fenomenoaren esangura argituta, hurrena, alderaketa bat egingo dugu gizakien salerosketa eta beste lau praktiken artean, hots, migranteen legez kontrako trafikoa (hemendik aurrera, migranteen trafikoa), immigrazio klandestino,

¹ UN.GIFT. GLOBAL INITIATIVE TO FIGHT HUMAN TRAFFICKING. «Human Trafficking: The Facts». Ikusi [http://www.unglobalcompact.org/docs/issues_doc/labour/ Forced_labour/HUMAN_TRAFFICKING_-_THE_FACTS_-_final.pdf](http://www.unglobalcompact.org/docs/issues_doc/labour/Forced_labour/HUMAN_TRAFFICKING_-_THE_FACTS_-_final.pdf).: (azken kontsulta: 2017ko abenduaren 19an).

² UNODC. «Algunos datos relevantes sobre la Trata de Personas». Ikusi https://www.unodc.org/documents/lpo-brazil//sobre_unodc/Fact_Sheet_Dados_Trafico_de_Pessoas_geral_ESP.pdf:; (azken kontsulta: 2017ko abenduaren 19an).

prostituzioa eta esklabotza. Izan ere, errealitatean gizakien salerosketa maiz nahasten da beste fenomeno horiekin. Azkena, gizakien salerosketaren garapena sustatzen duten arrazoi edo faktore adierazgarrietan jarriko dugu arreta, horietan ezkututzen baita fenomenoaren jatorria.

Azterketa honen jomuga nagusia da XXI. mendeko gizakien salerosketaren errealitatera hurbiltzea eta, informazio horretatik abiatuta, fenomeno erauzteko jarraitu behar diren ildo nagusiak zerrendatzea.

II. GIZAKIEN SALEROSKETAREN ESANAHIA XXI. MENDEAN

Gizakien salerosketak gaur egunean duen eragina ulertu ahal izateko, lehenengo eta behin, horren kontzeptua aztertu behar da. Fenomeno hau antzinatek existitu bada ere, horren esanahia une historiko bakoitzaren ezaugarriei moldatzen joan da; horregatik, berebiziko garrantzia dauka praktika honek XXI. mendean duen zentzua azaltzea eta ulertzea.

Hala ere, zeregin honi ekin aurretik, beharrezkoa da ohartarazpen garrantzitsu bat egitea. Gaur egunean, ez dago gizakien salerosketaren esanahia zehazten duen definizio unibertsal bateraturik; aldiz, fenomeno honi buruz makina bat definizio daude.

Hau esanda, gizakien salerosketaren kontzeptu juridikoa aztertzeari ekingo diogu eta, horretarako, nazioarte-mailan eredutzat hartzen den definizioari egingo diogu erreferentzia.

Gizakien salerosketaren definiziorik esanguratsuena Nazio Batuen baitan zehaztutakoa da, hain zuzen, Pertsonen salerosketa –emakumezkoena eta haurrena, batik bat– Saihestu, Erreprimitu eta Zigorrezko Protokoloan zehaztutakoa (Palermoko Protokoloa hemendik aurrera)³.

³ EAO, 2003ko abenduaren 11koa, 296. zk. Garrantzitsua da aipatzea Palermoko Protokoloak Antolatutako Delitugintza Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmena, 2000ko azaroaren 15ekoa, osatzen duela (EAO, 2003ko irailaren 29koa, 233. zk.)

Egin-eginean ere, Palermoko Protokoloak ikuspegi berria ematea lortu du gizakien salerosketaren esparruan, bere esangura zabalduz eta XXI. mendeko testuingurura moldatuz⁴.

Bada, Protokoloaren 3. artikulua hurrengo eran definitzen du gizakien salerosketa:

«pertsonek biltzea, garraiatzea, lekualdatzea, babestea edo hartzea, horretarako baliatzen baldin bada mehatxuz edo indarrak edo indarkeriaren beste forma batzuetaz edota bahiketaz, iruzurrak, engainuz, botere abusuz, ahultasun egoeraz edo ordaintekak edo onurak ematez edo hartzeaz pertsona baten adostasuna eskuratzeko, pertsona horrek beste pertsona baten gaineko agintaritzak badu, betiere esplotazio helburuekin. Esplotazio horrek barneratzen ditu, gutxienez ere, inoren prostituzioaren esplotazioa edo beste sexu esplotazio forma batzuk, derrigorrezko lan edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren antzeko eginerak, morrontza edo organoak ateratzea».

Eta, 3. artikulua hurrengo zehaztasunak gaineratu ditu.

(a) Batetik, biktimak aurretiaz deskribatutako egoera horretan baimena edo onespina eman badu, baimen horrek ez du baliorik izango eta ez da aintzat hartuko.

(b) Bestetik, haur bat (hau da, 18 urtetik beherako pertsona) hartzea, garraiatzea, lekualdatzea, babestea edo hartzea esplotatzeko helburuarekin, gizakien salerosketatzat hartuko da, nahiz eta aurretik zerrendatutako bideak erabili ez.

Palermoko Protokoloak ematen duen definizioa oinarritzat hartuz, ondoz ondoz daiteke gizakien salerosketak prozesu konplexu bat osatzen duela; preseski, gizakiaren esplotazioa gauzatzera bideratuta dagoen prozesua⁵.

⁴ OTTENHOF, R. "Traite des personnes et criminalité organisée au plan Européen et International". *Eguzkilore: Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*, 2003, 17. zk, 28. or

⁵ VILLACAMPA ESTIARTE, C. *El delito de Trata de Seres Humanos. Una incriminación dictada desde el Derecho Internacional*. Zizur Txikia: Aranzadi, 2011, 58. or.

Aurreratu den bezala, gizakien salerosketaren inguruan hainbat definizio daude, egitate honek zeharo oztopatzen duelarik fenomenoaren esanahiaren ulermena. Hala eta guztiz ere, Palermoko Protokoloa aldarririkatu zenetik, geroko hainbat testu juridikok bere definizioa eredutzat hartu dute, beste batzuen artean, hurrengoek: Europako Kontseiluaren Gizakien Salerosketaren aurkako Ekintzarako Hitzarmenak, 2005eko maiatzaren 16koa⁶; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/EB Zuzentarauak, gizakien salerosketaren aurkako borrokari eta prebentzioari eta biktimen babesari buruzkoa, 2011ko apirilaren 5koa⁷.

Oro har, testu juridiko berri hauek Palermoko Protokoloaren definizioa hartu dute oinarritzat eta gizakien salerosketa prozesu moduan aurkeztu dute baita ere. Gainera, bi ekarpen aipagarri egin dituzte: alde batetik, Palermoko Protokoloak fenomeno hau antolatutako krimenaren testuinguruan kokatzen duen bitartean, testu juridiko berriek ez dute lotura hori aintzat hartu eta, ondorioz, gizakien salerosketa edozein testuingurutan eman daitekeela aditzera eman dute; bestalde, Palermoko Protokoloak nazioarte-izaera duen gizakien salerosketari bakarrik egiten dio erreferentzia eta testu berriek, ordea, bai nazioarte-izaerako gizakien salerosketa bai eta barne-izaera duen gizakien salerosketa aurreikusten dute.

III. GIZAKIEN SALEROSKETA PROZESU GISA: OSAGIAK

Aurreko atalean ondorioztatutakoa gogora ekarriz, gizakien salerosketa gizakia esplotatzea helburutzat duen prozesua da. Ildo honetatik abiatuta, azpimarratu behar da prozesu honek hiru osagai edo ezaugarri nagusi dituela, hots, burututako egintza, erabilitako bideak eta bilatutako

⁶ EAO, 2003ko irailaren 10ekoa, 219. zk.

⁷ EBAC, 2011ko apirilaren 15ekoa, L 101. zk.

xedea⁸. Lehenengo bi elementuek *actus reus*-a osatzen dute eta hirugarren elementuak *mens rea* delakoa⁹. Gauzak horrela, kasu bat gizakien salerosketatzat hartzeko, hiru elementuak gertatu behar dira (salbu eta bi-deen betekizuna, biktima adingabea denean).

Jarraian, hiru osagai hauen zentzua sakonago aztertuko dugu.

1. Egintza

Gizakien salerosketaren oinarrizko egintza pertsonen bilketan, garraioan, lekualdaketan, babesean edo hartzean datza.

Osagai honek hainbat egintza desberdin hartzen ditu bere baitan eta, nolabait, egintza hauek biktimaren lekualdaketa edo mugimendu geografikoa aditzera ematen dute¹⁰. Azken aipamen honi dagokionez, biktimaren tokialdaketak barne-izaera zein nazioarte-izaera izan dezake. Bestela esanda, mugimendu geografikoa Estatu baten mugen barruan gertatzen denean gizakien salerosketak barne-izaera izango du eta Estatuaren arteko mugak zeharkatzen direnean gizakien salerosketak nazioarte-izaera izango du¹¹. Hori bai, fenomenoak nazioarte-izaera duenean, Estatuaren arteko mugimendua legezkoa zein legez kontrakoa izan daiteke¹².

Kasuz kasu, aipatutako egintzak oso modu desberdinetan gauzatu daitezke¹³.

⁸ WYLIE, G. eta MCREDMOND, P. «Introduction: Human Trafficking and Europe», WYLIE, G. eta MCREDMOND, P. (Ed.). *Human Trafficking in Europe. Character, Causes and Consequences*. Nueva York: Palgrave Macmillan, 2010, 2. or.

⁹ GALLAGUER, A.T. *The International Law of Human Trafficking*. Nueva York: Cambridge University Press, 2010, 29. or, 31. or. eta 34. or.

¹⁰ GARCÍA ARÁN, M. «Introducción», GARCÍA ARÁN, M. (Koord.). *Trata de personas y explotación sexual*. Granada: Comares, 2006, 15. or.

¹¹ GARCÍA VÁZQUEZ, S. «Inmigración ilegal y trata de personas en la Unión Europea: la desprotección de las víctimas». *Revista de Derecho Constitucional europeo*, 2008, 10. zk, 235. or.

¹² PÉREZ ALONSO, E.J. *Tráfico de personas e inmigración clandestina (un estudio sociológico, internacional y jurídico-penal)*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2008, 176. or.

¹³ DE LEÓN VILLALBA, F.J. *Tráfico de personas e inmigración ilegal*. Valentzia: Tirant Lo Blanch, 2003, 54. or.

Aurrena, biktimaren bilketari dagokionez, egintza hau biktimaren familia kide batek, lagun batek, pertsona ezagun batek edota ezezagun batek burutu dezake¹⁴. Sarri askotan, familia kideak edo pertsona ezagunak dira biktima lekuz aldatzera bultzatzen dutenak, jakinda biktimaren esplotazioa dela prozesuaren xedea¹⁵. Eta bilketa aurrera eramateko hainbat bide desberdin erabili daitezke, esate baterako, internet, iragarkiak, bi-daia-agentziak, ezkontza-agentzia faltsuak, e.a.

Behin bilketa gauzatu denean, hurrena, biktima beste toki batera garraiatu eta lekualdatzeari ekingo zaio. Garraioa gauzatzeko edozein garraio bide erabili daiteke (garraio bide publikoak zein pribatuak)¹⁶. Azken batean, tokialdaketa honen bidez biktima isolatzea lortu nahi da, bere familia eta lagunengandik urrunduz. Egintza hau burutzen duenak ez da zertan biktima bildu duen pertsona berdina izan behar; nahiz eta, hainbat kasutan, pertsona bera izan egintza guztiak gauzatzen dituenak.

Azkena, biktimaren hartzeari dagokionez, momentu honetan ere pertsona desberdinek parte hartu dezakete (biktimaren ezagunak edo pertsona ezezagunak). Oro har, biktima hartzen denean, oso ohikoa izaten da bere identifikazio agiriak hartzea (nortasun agiria edo pasaporteak), beraren isolamendua sendotzeko¹⁷.

¹⁴ Gai honen inguruan, ikusi, adibidez: KLEEMANS, E. eta VAN DE BUNT, H.G. «The social organisation of Human Trafficking», SIEGEL, D., VAN DE BUNT, K. y ZAITCH, D. (Ed.). *Global Organized Crime: Trends and Developments*. Dordrecht/Boston/London: Kluwer Academic Publishers, 2003, 101-102. orr. eta VAZ CABRAL, G. *La traite des êtres humains : réalités de l'esclavage contemporain*. Paris: La Découverte, 2006, 53-61. orr.

¹⁵ SHELLEY, L. «Human trafficking as a form of transnational crime», LEE, M. (Ed.). *Human Trafficking*. Oregon: Willan Publishing, 2010, 126-127. orr.

¹⁶ VILLACAMPA ESTIARTE, C. *El delito de Trata de Seres Humanos. Una incriminación dictada desde el Derecho Internacional*, op. cit., 61. or. Berebat, kontsultatu daiteke REPETSKAIA, A. «Classifying the Elements of Human Trafficking Crimes», STOECKER, S. eta SHELLEY, S. (Ed.). *Human Traffic and Transnational Crime. Eurasian and American Perspectives*. Lanham: Rowman & Littlefield Publishers, Inc., 2002, 48. or.

¹⁷ VAZ CABRAL, G. *La traite des êtres humains : réalités de l'esclavage contemporain*, op. cit., 64. or.

Informazio honekin batera, argitu behar da, egintza hauek biktimaren baimena edo adostasunarekin burutu daitezkeela¹⁸. Hau da, zenbait kasutan, biktimak pentsatzen du beste herri, hiri edo herrialde batean lan egiteko aukera izango duela eta bere baimena ematen du bertara lekualdatzeko. Argi eta garbi, biktimak emandako baimena engainu baten ondorioa da, horregatik baimen horrek ez du baliorik izango eta ez da aintzat hartuko.

2. Bideak

Gizakien salerosketa gertatzeko, hurrengo bideetako bat edo batzuk erabili behar dira: mehatxua edo indarra edo indarkeriaren beste forma batzuk edota bahiketa, iruzurra, engainua, botere abusua, ahultasun egoeraren gaineko probetxua edo ordainketak edo onurak ematearen edo hartzearen abantaila.

Bide hauek direla eta, gizakien salerosketaren izaera behartua (mehatxua, indarra edo indarkeriaren beste formak erabiltzen direnean), iruzurrezkoa (iruzurraz edo engainuaz baliatzen denean) edo abusuzkoa (abusuzko bideak erabiliz gero) izango da, eta, hain zuzen, izaera horrek erakusten du biktimaren askatasun eta segurtasun eza¹⁹. Bide hauen erabileraren delatua, biktimak ezin du erabaki askerik hartu.

Hala eta guztiz ere, ezin ahantz daiteke bide hauen presentzia ez dela beharrezkoa biktima adingabea denean. Horrenbestez, adingabeen salerosketak bi osagai nagusi izango ditu bakarrik: gauzatutako egintza eta bilatutako helburua²⁰.

¹⁸ RIJKEN, C. *Trafficking in persons. Prosecution from a European Perspective*. Haga: T.M.C. Asser Press, 2003, 61. or.

¹⁹ GUARDIOLA LAGO, M.J. *El tráfico de personas en el Derecho Penal Español*. Zizur Txikia: Aranzadi, 2007, 47-48. orr. eta PÉREZ CEPEDA, A.I. *Globalización, tráfico internacional ilícito de personas y derecho penal*. Granada: Comares, 2004, 35. or.

²⁰ BOLDOVA PASAMAR, M.A. (Zuz.). "Trata de seres humanos, en especial menores". *Revista de Derecho Migratorio y Extranjería*, 2010, 23. zk, 64. or.

3. Xedea

Gizakien salerosketaren azken helburua biktimaren esplotazioa da; hau da, burututako egintzen eta erabilitako bideen bitartez biktima esplotatu nahi da, esplotazio horretatik probetxu bat lortzeko²¹.

Xede hau hasieratik existitu behar bada ere, kasu bat gizakien salerosketatzat jotzeko helburua ez da praktikan gauzatu behar²². Beraz, gizakien salerosketak eskatzen duena asmo zehatz bat da, hau da, biktima esplotatzeko asmoa edo nahia. Hori dela eta, esplotazioa praktikan gertatuz gero, bi fenomeno desberdinen aurrean egongo ginatke: gizakien salerosketaren eta pertsonaren gaineko esplotazioaren aurrean, alegia.

Osagai honen norainokoa ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da argitzea zertan datzan pertsonaren esplotazioa.

Palermoko Protokoloaren definizioari erreparatuz, «esplotazio horrek barneratzen ditu, gutxienez ere, inoren prostituzioaren esplotazioa edo beste sexu esplotazio forma batzuk, derrigorrezko lan edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren antzeko eginerak, morrontza edo organoak ateratzea». Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/ EB Zuzentarauak hurrengo xede berriak gehitu ditu 2.3. artikuluan: «eskaltasuna» eta «delitu-egintzak gauzatzera zuzendutako esplotazioa». Are gehiago, Zuzentarauaren Hitzaurrean beste helburu batzuk ere aipatu dira, hala nola, «legez kanpoko adopzioak» eta «ezkontza behartuak».

Bada, Palermoko Protokoloak eta geroko testu juridikoek pertsonaren esplotaziotzat hartu daitezkeen zenbait egoera edo inguruabar aipatzen di

²¹ GALLAGUER, A.T. *The International Law of Human Trafficking*, op. cit., 34. or.

²² ARRIETA IDIAKEZ, F.J., MANRIQUE LÓPEZ, F. eta MANRIQUE ROJO, F. «Combating trafficking in human beings for labour exploitation in Spain», RIJKEN, C. (Ed.). *Combating Trafficking in Human Beings for Labour Exploitation*. Nijmegen: Wolf Legal Publishers, 2011, 289. or.; MARTOS NUÑEZ, J.A. “El delito de Trata de Seres Humanos: análisis del artículo 177 bis del Código Penal”. *Estudios penales y criminológicos*, 2012, 32. zk, 104. or.; eta RIJKEN, C. *Trafficking in persons. Prosecution from a European Perspective*, op. cit., 61. or.

tuzte argibide moduan. Hortaz, zerrenda hauek *numerus apertus* izaera dute. Esan beharra dago zerrenda hauek garrantzi berezia daukatela, prostituzioaz gain beste esplotazio egoera batzuk ere aintzat hartzen dituztelako, gizakien salerosketaren esanahia hedatuz. Urteetan zehar praktika hau bereziki sexu esplotazioarekin lotu izan denez, definizio hauek aditzera eman nahi izan dute gizakien salerosketa fenomeno zabalagoa dela eta horren helburuak beste hainbat esplotazio egoera barne hartzen dituela²³.

Aitzitik, definizioek ez dute jaso esplotazio egoeraren esanahia edo zentzua; arean ere, aipatutako inguruabarrak adibideak besterik ez dira. Horrenbestez, kasuan kasuko helburua arretaz aztertu beharko da pertsona esplotatzeko asmoa dagoen ala ez ziurtatzeko. Zeregin honetan, jurisprudentziak berebiziko garrantzia izango du.

IV. GIZAKIEN SALEROSKETA ESPAINIAKO ZIGOR KODEAN

Oraintsu arte, gizakien salerosketa ez da behar bezala tipifikatuta egon Espainiako Zigor Kodean. Hain zuzen ere, 2010ko ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoak, azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodeari buruzkoa, aldarazi duenak²⁴, VII Bis Titulua («Gizakien salerosketa») sartu zuen Zigor Kodean, 177 bis artikuluan gizakien salerosketa delitua tipifikatuz. Zigor Kodearen eraldaketa honen bitartez, Espainiako legegileak nazioarte-mailan hartutako konpromisoak bete zituen azkenean²⁵. Oraintsu, 2015eko martxoaren 30eko 1/2015 Lege

²³ EDWARDS, A. "Traffic in human beings: at the intersection of Criminal Justice, Human Rights, Asylum/Migration and Labor". *Denver Journal of International Law and Policy*, 2008, 1. zk. (36. bol.), 14. or.

²⁴ EAO, 2010eko ekainaren 23ekoa, 152. zk.

²⁵ Hau da, Palermoko Protokoloa eta Europako Kontseiluaren Gizakien Salerosketaren aurkako Ekintzarako Hitarmena berrestean hartutako konpromisoak [VILLACAMPA ESTIARTE, C. «Título VII Bis. De la Trata de Seres Humanos», QUINTERO OLIVARES, G. (Zuz.). *Comentarios a la Parte Especial del Derecho Penal*. Zizur Txikia: Aranzadi, 2011, Be-deratzigarren Argitalpena, 277-279. orr].

Organikoak, azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodeari buruzkoa, aldarazi duenak²⁶, 177 bis artikuluan aldaketak sartu ditu.

Zentzu honetan, Zigor Kodean VII Bis Titulua (eta 177 bis artikulua) sartu arte, gizakien salerosketa beste artikulua batzuen bitartez zigortu izan da Espainiako auzitegietan, batez ere, 318 bis artikulua bidez eta jadanik ezabatuta dagoen 188.2 artikulua bidez.

Horiek horrela, 5/2010 Lege Organikoaren Hitzurrearen XII. Atalak adierazten duen legez, 177 bis manu berriak babesten dituen ondasun juridikoak pertsonaren duintasuna eta askatasuna dira²⁷. Aitzitik, pertsonaren osotasun morala ere babesten du Titulu berriak²⁸.

Oro har, 177 bis artikulua hurrengo delitu-modalitateak arautu ditu: gizakien salerosketaren oinarritzko tipoa (lehenengo paragrafoa); adingabeen salerosketaren tipoa (bigarren paragrafoa); larriagotutako tipoa (laugarren, bosgarren eta seigarren paragrafoak); pertsona juridikoen erantzukizun penala (zazpigarren paragrafoa); eta prestatze-egintzak (zortzigarren paragrafoa).

Ikusiko dugun bezala, Espainiako legegileak nazioarte- eta Europar-mailako testu juridikoak hartu ditu oinarritzat 177 bis artikulua idazterako orduan. Hala eta guztiz ere, komeni da aipatutako delitu-modalitateak zehatzago aztertzea, aurkitu ditzakegun bitxikeriak azpimarratuz eta azalduz.

1. Oinarritzko tipoa

177 bis artikulua lehenengo paragrafoan gizakien salerosketaren oinarritzko tipoa zehazten da. Horren arabera:

²⁶ EAO, 2015eko martxoaren 31koa, 77. zk.

²⁷ Auzitegi Gorenak ere azpimarratu du ideia hau. Ikusi, adibidez: 3111/2011 Epaia, 2011ko maiatzaren 17koa, Auzitegi Goreneko Penaleko Salako 1. Sekzioarena, Bigarren Oinarri Juridikoa.

²⁸ MUÑOZ CONDE, F. *Derecho Penal. Parte Especial*. Valentzia: Tirant Lo Blanch, 2010, Hemezortzigarren Argitalpena, 207. or.

«Bost urtetik zortzi urte arteko espetxe zigorra ezarriko zaio, giza-
kien salerosketaren errudun gisa, nahiz Espainiako lurraldean, nahiz
Espainiatik, edo Espainia iraganbide zein helmuga izanik, indar-
keria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun- zein beha-
rrizan-egoeraz, nahiz biktimaren –hori nazionala edo atzerritarra
izan– ahuleziaz abusatuz, edo biktima kontrolatzen duen pertsona-
ren adostasuna izate aldera, harengandik ordainketak edo onurak
jasoz edo pertsona horri ordainketak edo onurak emanez, biktima
atzeman, garraiatu, lekualdatu, hartu, jaso, trukatu edo haren kon-
trolla eskualdatzen duenari, hauetako edozein helbururekin:

- a) Bortxazko lanak edo zerbitzuak eginaraztea, esklabotzan ari-
tzera behartzea, edo esklabotzaren, mirabetzaren edo eskaletasu-
naren antzeko praktikak eginaraztea.
- b) Sexu-esplotazioan erabiltzea, pornografia barne.
- c) Delitu-jarduerak egiteko esplotatzea.
- d) Gorputz-organoak ateratzea.
- e) Ezkontza behartuak eginaraztea.

Biktima beharrizan- edo ahulezia-egoeran dagoela joko da, per-
tsona horrek dituen aukeren artean benetakoa edo onargarria
den bakarra abusua jasatea denean».

1.1. *Subjektu aktiboa eta subjektu pasiboa*

Espainiako Zigor Kodearen ondorioetarako, gizakien salerosketa edo-
zein pertsonak burutu dezake, edozein pertsonaren kontra. Hortaz, de-
litu arrunta dela esan dezakegu, edonor izan daitekeelako delituen sub-
jektu aktiboa eta subjektu pasiboa²⁹.

²⁹ CORCOY BIDASOLO, M. eta MIR PUIG, S. «Título VII Bis. De la Trata de Seres Hu-
manos», CORCOY BIDASOLO, M. eta MIR PUIG, S. (Zuz.). *Comentarios al Código Penal. Re-
forma LO 5/2010*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2011, 422. or.

Hain zuzen ere, VII Bis Tituluak *gizakiari* egiten dio erreferentzia modu orokorrean, delituaren subjektu pasiboa edonor izan daitekeela aditzera emanaz. Are gehiago, oinarritzko tipoan zehazten da biktima bai nazionala bai atzerritarra izan daitekeela. Azken ideia honi begira, argitu behar da, manuak «atzerritarra» aipatzen duenean erreferentzia egiten diola Europar Batasuneko Estatu kideetako nazionalak ez diren pertsonen eta Europar Batasuneko erregimenaren aplikaziotik kanpo dauden pertsonen. Beraz, zentzu zabalean ulertu behar da «nazionala» hitza. Ziu-rrenik, «nazionala edo atzerritarra» erreferentziaren bitartez, Espainiako legegileak argitu nahi izan du gizakien salerosketan edozein pertsona izan daitekeela biktima, atzerritarrekin bakarrik lotutako delituekin alderatzeko. Alabaina, uste dugu aipamena soberan dagoela eta zuzenagoa dela «pertsonak» edo «gizakiak» bezalako hitzak erabiltzea³⁰.

1.2. *Objektu materiala*

Egintzaren objektua gizakien salerosketa jasaten duen pertsona izango da. Beraz, delituaren subjektu pasiboa eta objektu materiala bat datoz³¹.

1.3. *Portaera tipikoa*

Gizakien salerosketaren portaera tipikoa (1) pertsona bat antzematean, garraiatzean, lekualdatzean, hartzean, jasotzean, trukitzean edo haren kontrola eskualdatzean datza, (2) bai Espainiako lurraldean, bai Espainiatik edo Espainia iraganbide zein helmuga izanik, (3) indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun zein beharizan egoeraz, nahiz biktimaren ahuleziaz abusatuz, edo biktima kontrolatzen duen pertso-

³⁰ POMARES CINTAS, E. «El delito de trata de seres humanos», ÁLVAREZ GARCÍA, F.J. (Zuz.). *Derecho Penal Español. Parte Especial (I)*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2011, Bigarren Argitalpena, 549. or., eta VILLACAMPA ESTIARTE, C. *El delito de Trata de Seres Humanos. Una incriminación dictada desde el Derecho Internacional, op. cit.*, 549. or.

³¹ LLORIA GARCÍA, P. «Trata de Seres Humanos», BOIX REIG, J. (Zuz.). *Derecho Penal. Parte Especial. Volumen I. La protección penal de los intereses jurídicos personales (Adaptado a las reformas de 2010 del Código Penal)*. Madrid: Iustel, 2010, 298.or.

naren adostasuna izate aldera, harengandik ordainketak edo onurak jasoz edo pertsona horri ordainketak edo onurak emanez, (4) doloz, (5) biktima esplotatzeko helburuarekin³².

Hain zuzen ere, portaera tipikoan bost elementu identifikatu daitezke: hiru elementu objektibo eta bi elementu subjektibo.

(A) Elementu objektiboak

Elementu objektiboak hiru multzotan banatu daitezke: oinarrizko egintza; lekualdaketa eta erabilitako bideak.

(a) «Oinarrizko egintza».

Delituaren oinarrizko egintza, aipatu bezala, pertsona bat antzema-tean, garraiatzean, lekualdatzean, hartzean, jasotzean, trukitzean edo ha-ren kontrola eskualdatzean datza. Argi dago, nazioarte- eta europar-mai-lako testuek jasotako egintza berdina jaso duela Espainiako legegileak, nahiz eta aditz desberdinak erabili.

Oinarrizko egintzak oso egoera desberdinak hartzen ditu bere bai-tan³³. Egoera hauek oso modu orokor eta zabalean aipatzen direnez, zaila da zehaztea zein den bakoitzaren norainokoa. Oro har, eta lanaren hiru-garren atalean azalduakoa gogora ekarriz, 177 bis artikulua oina-rrizko egintzak gizakien salerosketa prozesu moduan aurkezten du.

(b) «Lekualdaketa».

Oinarrizko tipoa zehaztasun eztabaidagarria agertzen da biktimaren lekualdaketa inguruan: «nahiz Espainiako lurraldean, nahiz Espainia-

³² Saikapen hau MARAVER GÓMEZek erabiltzen du: MARAVER GÓMEZ, M. «La Trata de Seres Humanos», DÍAZ-MAROTO Y VILLAREJO, J. (Zuz.). *Estudios sobre las Reformas del Código Penal operadas por las LO 5/2010, de 22 de junio, y 3/2011, de 28 de enero*. Zizur Txikia: Civitas-Thomson Reuters, 2011, 318-326. orr.

³³ ARRIETA IDIAKEZ, E.J., MANRIQUE LÓPEZ, F. eta MANRIQUE ROJO, F. «Combating trafficking in human beings for labour exploitation in Spain», *op. cit.*, 288. or.

tik edo Espainia iraganbide zein helmuga izanik»³⁴. Argibide honen bitartez, uste dugu, legegileak azpimarratu nahi izan duela gizakien salerosketak barne-izaera zein nazioarteko izaera izan dezakeela.

Haatik, beste testu juridikoen definizioekin alderatuz gero, esamolde honek murriztu egin du gizakien salerosketaren norainokoa. Izan ere, biktimaren lekualdaketak espainiar lurraldearekin nolabaiteko lotura izatea eskatzen du³⁵.

(c) «Erabilitako bideak».

Azaldu berri dugun egintza gauzatzeko, oinarrizko tipoak eskatzen du indarkeria, larderia edo engainua erabili behar dela, edota nagusitasun zein beharrizan egoeraz probetxua atera behar dela, nahiz biktimaren ahuleziaz abusatu behar dela, edo biktima kontrolatzen duen pertsonaren adostasuna izate aldera, harengandik ordainketak edo onurak jasoz edo pertsona horri ordainketak edo onurak emanez burutu behar dela egintza.

Palermoko Protokoloarekin, Europako Kontseiluaren Hitzarmenarekin eta Europar Batasuneko Zuzentarauarekin alderatuz gero, ohartu gaitzke Espainiako Zigor Kodeak ez dituela hurrengo bideak aipatu: «bahiketa» eta «iruzurra». Bahiketari dagokionez, nahiz eta beren-beregi ez aipatu, ulertu daiteke indarkeriak eta larderiak barruan hartzen dutela bide hau. Iruzurra, bere aldetik, engainuarekin parekatu daiteke.

³⁴ Gai honen inguruan, ikusi: RODRÍGUEZ FERNÁNDEZ, I. «Capítulo 4. Trata de Personas», ORTIZ DE URBINA GIMENO, I. (Koord.). *Memento Experto. Reforma Penal 2010. Ley Orgánica 5/2010*. Madril: Francis Lefebvre, 2010, 74-75. orr.

³⁵ CUGAT MAURI, M. «La trata de seres humanos: la universalización del tráfico de personas y su disociación de las conductas infractoras de la política migratoria (arts. 177 bis, 313, 318 bis)», QUINTERO OLIVARES, G. (Zuz.). *La Reforma Penal de 2010: Análisis y Comentarios*. Zizur Txikia: Civitas-Thomson Reuters, 2010, 161. or, GARCÍA SEDANO, T. «El tipo de trata de seres humanos». *La ley penal*, 2014, 109. zk, 3. or; eta SUÁREZ-MIRA RODRÍGUEZ, C. (Koord.). *Manual de Derecho Penal. Tomo II. Parte Especial*. Zizur Txikia: Civitas-Thomson Reuters, 2011, Seigarren Argitalpena, 149. or.

Ildo honetatik abiatuta, 177 bis artikulua hiru paragrafoaren arabera, «gizakien salerosketaren biktima baten adostasunak ez du ondoriozko izango artikulua honen lehenengo paragrafoan aipatu bideetarikoa baliatu denean». Argi eta garbi, bide hauen erabilerak biktimaren adostasuna edo baimena baliotzeko gabe utziko du³⁶.

(B) Elementu subjektiboak

Elementu subjektiboak bi multzotan bereizi daitezke: doloa eta pertsona esplotatzeko xedea.

(a) «Doloa».

Oinarritzko egintzak doloa eskatzen du. Hau da, subjektu aktiboaren asmoa izan behar da portaera tipikoaren elementu objektiboak aurrera eramatea.

(b) «Pertsona esplotatzeko xedea».

Ikuspuntu subjektibotik, tipoa ez du doloa bakarrik eskatzen, baizik eta helburu edo xede zehatz baten presentzia ere eskatzen du. Zentzu honetan, subjektu aktiboak pertsonaren esplotazioa bilatu behar du, hori izan behar delarik bere jomuga nagusia.

Pertsonaren esplotazioaren zentzua ulertzeko, 177 bis artikulua ondoko egoerak zehazten ditu: bortxazko lanak edo zerbitzuak eginaraztea, esklabotzan aritzera behartzea, edo esklabotzaren, mirabetzaren edo eskaletasunaren antzeko praktikak eginaraztea; sexu-esplotazioan erabiltzea, pornografia barne; delitu-jarduerak egiteko esplotatzea; gorputz-organoak ateratzea; eta ezkontza behartuak eginaraztea. Nazioarteko eta Europar Batasuneko testuak ez bezala, 177 bis artikulua aipatzen duen

³⁶ TERRADILLOS BASOCO, J.M. «Trata de Seres Humanos», ÁLVAREZ GARCÍA, F.J. eta GONZÁLEZ CUSSAC, J.L. *Comentarios a la Reforma Penal de 2010*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2010, 210. or.

zerrenda *numerus clausus* da³⁷. Edonola ere, ez da esplotazio egoera horien norainokoa azaltzen.

Jadanik aipatu dugun bezala, pertsona esplotatzeko helburua hasieratik existitu behar den arren, tipoak ez du eskatzen esplotazioa praktikan gauzatzea. Beraz, esplotazioa gertatuz gero, delituen pilaketa egongo da.

2. Adingabeen salerosketaren berariazko tipoa

177 bis artikulua bigarren paragrafoan adingabeen salerosketaren tipoa jasotzen da. Horren arabera, «aurreko paragrafoan aipaturiko bi-deak erabili ez arren, gizakien salerosketatzat hartuko da aurreko paragrafoan adierazitako edozein egintza, horiek adingabeei egiten zaizkie-nean ustiaketa helburuekin».

Manu honen ondorioetarako, ulertuko da adingabea dela 18 urtez az-piko pertsona. Klausularen edukiari erreparatuz, uste dugu ezgaien ingu-ruko erreferentzia falta dela³⁸.

Horiek horrela, adingabeen salerosketaren portaera tipikoa pertsona adingabe bat antzematean, garraiatzean, lekualdatzean, hartzean, jaso-tzean, trukitzean edo haren kontrola eskualdatzean datza, adingabea es-plotatzeko xedearekin. Ikuspuntu subjektibotik, tipoaren doloak eska-tzen du delituaren egileak ezagutzea biktima adingabea dela eta, jakina-ren gainean, adingabea esplotatzea izatea bere helburua³⁹.

Adingabeen salerosketa gertatzen denean, zigorra oinarritzko tipoaren zigor berdina izango da (hau da, bost urtetik zortzi urte arteko espe-txealdi-zigorra).

³⁷ MARAVER GÓMEZ, M. «La Trata de Seres Humanos», *op. cit.*, 324. or.

³⁸ Honen inguruan, ikusi BENÍTEZ ORTÚZAR, I.F. «Trata de seres humanos», MORILLAS CUE-VA, L. (Koord.). *Sistema de Derecho Penal Español. Parte Especial*. Madril: Dykinson, 2011, 228. or.

³⁹ POMARES CINTAS, E. «El delito de trata de seres humanos», *op. cit.*, 562. or.

3. Larriagotutako tipoak

177 bis artikuluauren laugarren, bosgarren eta seigarren paragrafoek gizakien salerosketa delituaren larriagotutako tipoak jasotzen dituzte. Hain zuzen, zehazten diren tipoak subjektu pasiboari eta subjektu aktiboari egiten diete erreferentzia.

3.1. *Subjektu pasiboarekin zerikusia duten larriagotutako tipoak*

177 bis artikuluauren laugarren paragrafoak subjektu pasiboarekin lotura duten bi inguruabar jasotzen ditu. Hauetako inguruabar bat gertatuz gero, oinarrizko tipoari dagokion zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko da eta, inguruabar bat baino gehiago bilduz gero, zigorra goiko erdian ezarriko da.

(a) «Delituaren xede diren pertsonen bizitza edo osotasun fisiko zein psikikoa arriskuan jarri denean». Tipo honen ondorioetarako, biktimaren bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jarri behar da salerosketaren portaera gauzatzen denean eta, are gehiago, egileak doloz jarri behar du biktima arriskuan⁴⁰.

(b) «Biktima bereziki ahula denean gaixotasun, haurdunaldi, desgaitasun edo egoera pertsonalarengatik, edota adingabea denean». Inguruabar honen arabera, salerosketaren egilea biktimaren egoera ahulaz aprobetxatu behar da. Tipoak argitzen du ahultasuna gaixotasunaren ondorioa, desgaitasunaren ondorioa, egoera pertsonalaren ondorioa edo adingabea izatearen ondorioa izan daitekeela. Egoera pertsonalaren inguruko aipamenak tipoa erabat zabaldu egiten du eta, horregatik, biktimaren ahultasuna kasuz kasu baloratu behar da. Hori bai, *non bis in idem* printzipioa dela eta, oinarrizko tipoa aplikatzerako orduan biktimaren ahultasunaren abusia aintzat hartu bada, ezin izango da tipo larriagotu hau aplikatu.

⁴⁰ Honen inguruan, *vid.* SANTANA VEGA, D. «Título VII Bis. De la trata de seres humanos», CORCOY BIDASOLO, M. eta MIR PUIG, S. (Zuz.). *Comentarios al Código Penal. Reforma LO 1/2015 y LO 2/2015*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2015, 659. or.

3.2. *Subjektu aktiboarekin zerikusia duten larriagotutako tipoak*

177 bis artikulua bosgarren eta seigarren paragrafoetan delituaren subjektu aktiboari erreferentzia egiten dioten bi inguruabar aipatzen dira⁴¹.

(a) «Gizakien salerosketaren egitateak burutzen dituztenak, eurek duten gintaritza edo horren agente edo funtzionario publiko izaeraz baliatuz gauzatzen dituztenean». Bestera esanda, delituaren subjektu aktiboak bere karguaz abusatzen du delitua era errazagoan gauzatzeko. Inguruabar hau gertatuz gero, oinarritzko tipoarentzat aurreikusitako zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko da eta sei urtetik hamabi urte arteko erabateko desgaitasuna. Modu berean, subjektu pasiboarekin zerikusia duten inguruabarren bat ere gertatuz gero, zigorrak goiko erdian ezarriko dira.

(b) «Gizakien salerosketaren subjektu aktiboa bi pertsona baino gehiagoko erakunde edo elkarteko partaide denean, aldi baterako izan arren, eta jarduerak egiten baditu, modu iragankorrean bada ere». Printzipioz, oinarritzko tipoarentzat aurreikusita dagoen zigorra baino gradu bat gehiagokoa ezarriko da eta kondenak iraun bitartean lanbide, ofizio, industri edo merkataritzarako desgaitasuna berezia ezarriko da. Eta subjektu aktiboa antolakunde edo elkarteetako buru, administratzaile edo arduraduna denean, zigorra bere goiko erdian ezarriko da; zigor hori baino gradu bat gehiagokoa ere ezarri ahal izango delarik. Orobat, laugarren paragrafoan zehaztutako inguruabarren bat edo bosgarren paragrafoan bildutako inguruabarra bilduz gero, gradu bat gehiagoko zigorra ezarriko da.

4. *Pertsona juridikoen erantzukizun penala*

177 bis artikulua zazpigarren paragrafoan pertsona juridikoen erantzukizun penala arautu da. Zentzu honetan, pertsona juridikoa gizakien salerosketaren erantzulea bada eta, betiere, Zigor Kodearen 31 bis artiku-

⁴¹ VILLACAMPA ESTIARTE, C. «Título VII Bis. De la Trata de Seres Humanos», *op. cit.*, 295-298. orr.

luak aurreikusten dituen baldintzak ematen badira, lortutako irabazien hiru halakotik bost halako arteko isun-zigorra ezarriko zaio⁴². «Lortutako irabaziak» esamoldearen norainokoa argitu behar da, arean ere, lortutako irabaziak izango dira gizakien salerosketaren prozesutik lortutakoak eta, ez ordea, salerosketak helburutzat duen esplotaziotik lortutakoak⁴³.

5. Prestatze-egintzak

177 bis artikulua zortzigarren paragrafoaren arabera, «gizakien salerosketa delitua egiteko zirikatzeta, konspiratzea eta proposatzea zigortuko dira, delituari dagokion zigorra baino gradu bat edo bi gutxiagoko zigorrarekin». Zenbait autoreen iritziz, aurreikuspen honek delituaren esparru zehatzailea gehiegi zabaltzen du, batez ere, kontuan hartzen bada nazioarte-mailako testuek ez dutela horrelako xedapenik jasotzen⁴⁴.

V. GIZAKIEN SALEROSKETA BESTE FENOMENOEN AURREAN: EZINBESTEKO BEREIZKETA

Sarri askotan, gizakien salerosketa beste fenomeno batzuekin nahasten da. Bi dira nahasketa honen arrazoi nagusiak: batetik, gizakien salerosketaren esangura eta hedaduraren inguruko ezjakintasun orokorra; eta, bestalde, beste fenomeno batzuekin mantentzen duen lotura edo antzekotasuna.

⁴² Vid. DAUNIS RODRÍGUEZ, A. *El delito de trata de seres humanos*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2013, pp. 165-168.

⁴³ Gogora bedi, esplotazioa ez dela fenomenoaren elementua. Kontsultatu daiteke: POMARES CINTAS, E. «El delito de trata de seres humanos», *op. cit.*, 569. or

⁴⁴ CONDE-PUMPIDO TOURÓN, C. eta CRESPO BARQUERO, P. «Título VII Bis. De la trata de seres humanos», CONDE-PUMPIDO FERREIRO, C. (Zuz.). *Código Penal Comentado. Con concordancias y jurisprudencia. Actualizado a la LO 5/2010 de 23 de junio de 2010. Tomo I. Arts. 1 al 318 bis*. Bartzelona: Bosch, 2012, Hirugarren Argitalpena, 676. or, eta DEVICENTE MARTÍNEZ, R. «Título VII Bis. De la Trata de Seres Humanos», GÓMEZ TOMILLO, M. (Zuz.). *Comentarios al Código Penal*. Valladolid: Lex Nova, 2011, Bigarren Argitalpena, 704. or.

Kasuan kasuko fenomenoen arteko nahasketa eragiten duen arrazoia edozein dela, azpimarratu behar da nahasketak gizakien salerosketa saihesteko nahiz zigortzeko tresnen eraginkortasuna erabat oztopatzen duela. Horregatik, funtsezkoa da atal honetan nahasketa ohikoenak zeintzuk diren aipatzea eta azaltzea, hauek gogoan izan daitezen⁴⁵.

1. Gizakien salerosketa eta Migranteen legez kontrako trafikoa

Gizakien salerosketa eta Migranteen legez kontrako trafikoa maiz nahasten dira bai teorian bai praktikan. Nahasketa hau gainditzeko, Antolatutako Delitugintza Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmenak bi Protokolo desberdin jaso zituen: bata gizakien salerosketari buruzkoa, bestea migranteen trafikoari buruzkoa. Bereizketa honek erakutsi zuen bi fenomeno hauek praktikan loturak izan arren, bi errealitate desberdin osatzen dituztela eta, horregatik, tratamendu berezia behar dutela.

Hain zuzen ere, Antolatutako Delitugintza Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmena osatzen duen Lurretik, Itsasotik edo Airetik Migranteen legezaren kontra egiten den trafikoaren aurkako Protokoloak⁴⁶ migranteen trafikotzat ulertzen du «Estatu kide bateko nazionala edo egoiliar iraunkorra ez den pertsonari laguntza ematea Estatu kide horretan legez kontra sartzeko, onura ekonomikoa edo izaera materiala duen bestelako onura, zuzenean nahiz zeharka, lortzeko xedearekin»⁴⁷.

Labur esanda, migranteen trafikoak bi elementu nagusi ditu: batetik, egintza (hau da, Estatu kide bateko nazionala edo egoiliar iraunkorra ez

⁴⁵ Oro har, kontuan izan LÓPEZ RODRÍGUEZ, J. *Conceptualización jurídica de la trata de seres humanos con fines de explotación laboral*. Zizur Txikia: Thomson Reuters-Aranzadi, 2016, 94-114. orr.

⁴⁶ EAO, 2003ko abenduaren 10ekoa, 295. zk. Gai honen inguruan, *vid.* DE LA CUESTA ARZAMENDI, J.L. «Tráfico y trata de seres humanos: regulación internacional y europea», RICHARD GONZÁLEZ, M., RIAÑO BRUN, I. eta POELEMANS, M. (Koord.). *Estudios sobre la lucha contra la trata de seres humanos*. Zizur Txikia: Thomson Reuters-Aranzadi, 2013, 40-42. orr.

⁴⁷ Protokoloaren 3. a) artikulua (itzulpen propioa).

den pertsonari laguntza ematea Estatu kide horretan legez kontra sartzeko) eta, bestalde, bilatutako xedea (hots, onura ekonomikoa edo izaera materiala duen bestelako onura lortzea).

Gizakien salerosketaren eta migranteen trafikoaren kontzeptuak alderatuz gero, bi fenomenoen arteko desberdintasunak argi antzeman daitezke, nahiz eta errealitatean zailagoa izan bereizketa egitea. Azken aipamen honen harira, garrantzitsua da ohartaraztea, praktikan, gizakien salerosketan eta migranteen trafikoan erabiltzen diren ibilbideak berdinak izan daitezkeela; gizakien salerosketaren arduradunak aldi berean migranteen trafikoaren arduradunak ere izan daitezkeela; eta migranteen trafikoaren objektu diren pertsonak gizakien salerosketaren biktima erraz bihurtu daitezkeela⁴⁸.

Ondoren, desberdintasun nabarmenenak aipatzeari ekingo diogu.

(a) «Helburua». Migranteen trafikoaren helburua pertsona bat Estatu batean legearen kontra sartzeko laguntza ematea da irabaziak lortzeko asmoarekin. Gizakien salerosketaren azken xedea, ordea, pertsona esplotatzea da⁴⁹.

(b) «Baimena edo adostasuna». Alde batetik, migranteen trafikoa geratzeko pertsona batek (migranteak) bere baimena emango dio beste pertsona bateri, bigarren honek laguntza eman diezaion nazioarteko mugak legearen kontra zeharkatzeko⁵⁰. Bestalde, gizakien salerosketaren testuinguruan, biktimaren lekualdaketa bere baimenarekin zein baime-

⁴⁸ Migranteek trafikoaren arduradunarekin duten zorra oso handia izaten da eta egitate horrek beraien ahulezia areagotzen du; gainera, Estatu berrian duten egoera irregularra dela eta, ezkutuko ekonomian bakarrik lan egin ahal izango dute. Arrazoi hauek direla medio, posiblea da migrantea gizakien salerosketaren biktima bihurtzea [GUTIÉRREZ SELLER, A. "Tráfico de personas para la explotación laboral". *Crítica*, 2006, 940. zk. (56. urtea), 43. or.].

⁴⁹ PIOTROWICZ, R. «Human security and trafficking of human beings: the myth and the reality», EDWARDS, A. y FERSTMAN, C. (Ed.). *Human Security and Non-Citizens. Law, Policy and International Affairs*. Cambridge: Cambridge University Press, 2010, 404. or.

⁵⁰ GARCÍA VÁZQUEZ, S. "Inmigración ilegal y trata de personas en la Unión Europea: la desprotección de las víctimas", *op. cit.*, 235. or.

nik gabe gauzatu daiteke. Hau da, kasu batzuetan, biktimak bere adostasuna emango du, baina baimenak ez du baliorik izango iruzurrezko nahiz abusuzko bideen erabileraren ondorioz eman delako. Eta, beste kasuetan, biktimaren lekualdatzeak izaera behartua izango du⁵¹.

(c) «Subjektuen arteko harremana». Migranteen trafikoan subjektuek merkataritza harremana mantentzen dute euren artean, horregatik, migrantea bezero edo kontsumitzailetzat hartuko da⁵². Aitzitik, gizakien salerosketan subjektuen arteko harremana esplotatzailea da, hau da, pertsona esplotatzeko asmoan oinarritzen da⁵³. Hori dela eta, gizakien salerosketaren objektu diren pertsonak biktimatzat hartuko dira.

(d) «Lekualdaketaren izaera». Migranteen trafikoan, lekualdaketak nazioarte-izaera izango du beti eta legearen kontra gauzatuko da. Haatik, gizakien salerosketak nazioarte-izaera zein barne-izaera izan dezake eta lekualdaketa legezko bideak erabiliz nahiz legearen kontrako bideak erabiliz gauzatu daiteke⁵⁴. Hau teoriarik horrela bada ere, azpimarratu behar da, praktikan, migranteen trafikoan migranteen giza eskubideak maiz urratzen direla; hortaz, testuinguru honetan, migranteak biktimak ere izan daitezke.

(e) «Delitu mota». Migranteen trafikoak ordena publikoa eta Estatuaren segurtasuna urratzen ditu. Bere aldetik, gizakien salerosketaren esparruan, lehenengo eta behin, pertsonaren giza eskubideen bortxaketa la-

⁵¹ JIMENEZ, E. «La distinction problématique entre la traite des personnes et le trafic de migrants risque de laisser sans protection les victimes de la traite», CLAUDE, M., LAVIOLETTE, N. eta POULIN, R. *Prostitution et Traite des Êtres Humains. Enjeux nationaux et internationaux*. Ottawa: Les Éditions L Interligne, 2008, 122. or.

⁵² SCARPA, S. *Trafficking in human beings: modern slavery*. Nueva York: Oxford University Press, 2008, 68. or.

⁵³ BATSUKOVA, S. “Human Trafficking and Human Smuggling: similar nature, different concepts”. *Studies of Changing Societies: Comparative and Interdisciplinary Focus*, 2012, 1. zk (1. bol.), 41. or.

⁵⁴ DAUNIS RODRÍGUEZ, A. *El derecho penal como herramienta de la política migratoria*. Granada: Comares, 2009, 46. or.

ria gertatzen da⁵⁵. Areago, izan daiteke giza eskubideen bortxaketarekin batera, Estatuaren segurtasuna eta ordena publikoa ere urratzea. Aurreko paragrafoan esan bezala, praktikan gertatu daiteke migranteen trafikoa giza eskubideen urraketa ere gertatzea.

2. Gizakien salerosketa eta Immigrazio klandestino

Immigrazio klandestino pil-pilean dagoen fenomeno da. Sarri askotan, praktika honen garapena sustatzen duten faktoreak gizakien salerosketa bultzatzen duten arrazoiekin bat datoz, hori dela eta, garrantzizkoa da bi fenomenoak argi bereiztea.

Egin-eginean ere, immigrazio klandestinoak bere gain hartuko ditu hurrengo egoerak: pertsona bat Estatu batean legearen kontra sartzea edo Estatu hartzailean legearen kontra geratzea, egintza horiek bere kabuz edota inoren laguntzaren bidez burutzen dituenen⁵⁶.

Kasu batzuetan, immigranteak legezko bideak erabiliko ditu Estatuan sartzeko, baina, bertan geratzeko beharrezkoak diren baimenak ez dituenek, legearen kontra geratuko da; beste kasu batzuetan, ordea, immigrantea legearen kontra sartuko da Estatuan, hau da, bertan sartzeko bete behar diren prozedurak saihestuz, eta, ondoren, legearen kontra geratuko da⁵⁷. Hain zuzen ere, immigranteak bere kabuz burutu ditzake egintza

⁵⁵ OBOKATA, T. "A human Rights Framework to address trafficking of human beings". *Netherlands quarterly of Human Rights*, 2006, 3. zk. (24. bol.), 382. or.

⁵⁶ DAUNIS RODRÍGUEZ, A. *El derecho penal como herramienta de la política migratoria*, op. cit., 42-43. orr.; DEL VALLE GÁLVEZ, A. «El frágil estatuto internacional y europeo del inmigrante irregular», DEL VALLE GÁLVEZ, A. eta ACOSTA SÁNCHEZ, M.A. (Ed.). *Immigración Irregular y Derecho. VIII Jornadas Autonómicas de Derecho Internacional Humanitario*. Cádiz: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Cádiz, 2005, 142. or.; HJARNÓ, J. *Illegal Immigrants and Developments in Employment in the Labour Markets of the EU*. Hampshire: Ashgate, 2003, 3. or.; eta JORDAN, B. eta DÜVELL, F. *Irregular Migration. The Dilemmas of Transnational Mobility*. Cheltenham: Edward Elgar, 2002, 15. or.

⁵⁷ ASÍN CABRERA, M.A. «La inmigración irregular en la investigación jurídica», GODENAU, D. eta ZAPATA HERNÁNDEZ, V.M. (Koord.). *La inmigración irregular. Aproximación multidisciplinar*. Tenerife: Área de Desarrollo Económico, 2005, 216. or.

hauek edota beste inoren laguntzarekin. Azken aipamenari dagokionez, laguntza ematen duten pertsonak modu solidarioan parte hartu dezakete zein irabaziak lortzeko asmoarekin⁵⁸.

Behin immigrazio klandestinoaren funtsa azalduta, bi fenomenoak bereizten dituzten ezaugarri nabarmenenak aipatzeari ekingo diogu.

(a) «Egintza». Immigrazio klandestinoaren egintza nagusia Estatu batean legaren kontra sartzean edo Estatuan legearen kontra geratzean dartzan bitartean, gizakien salerosketaren egintzak hainbat egoera desberdin hartzen ditu bere baitan. Are gehiago, immigrazio klandestinoan, immigrantea bera da egintza borondatez gauzatzen duenak (bere kabuz edota beste inoren laguntzarekin); gizakien salerosketan, berriz, egintzak gauzatzen dituzten pertsonak eta egintza horien objektua den pertsona bereizi behar dira. Gainera, gizakien salerosketan, izan daiteke egintzaren objektua den pertsonak bere baimena edo adostasuna ematea (nahiz eta adostasunak baliorik ez izan).

(b) «Xedea». Immigrazio klandestinoaren jomuga Estatu hartzailean legearen kontra sartzea edo legearen kontra geratzea da; aldiz, gizakien salerosketak bilatzen duen helburu nagusia pertsona esplotatzea da.

(c) «Legearen urraketa». Immigrazio klandestinoak Estatu hartzailean legezko sarrera edo legezko egonaldia arautzen duten xedapenak urratzen ditu; gizakien salerosketak, ordea, pertsonaren giza eskubideen kontrako eraso suposatzen du ezer baino lehen. Hala ere, kasuaren ezaugarrien arabera, gertatu daiteke gizakien salerosketak Estatu hartzailearen atzeritartasunari buruzko arauak ere urratzea.

⁵⁸ Gai honen inguruan, kontsultatu daiteke STARING, R. «Smuggling aliens Toward the Netherlands: the role of human smugglers and transnational networks», SIEGEL, D., VAN DE BUNT, K. eta ZAITCH, D. (Ed.). *Global Organized Crime: Trends and Developments*. Dordrecht/Boston/London: Kluwer Academic Publishers, 2003, 110-111. orr.

3. Gizakien salerosketa eta Prostituzioa

Aspalditik, gizakien salerosketa prostituzioarekin lotu izan da. Lotura honen adibide dira, XX. mendean gizakien salerosketaren kontra aldarrikatzen hasi ziren lehenengo dokumentuak, bi fenomeno hauek zuzenean lotu zituztenak. Adibidez, Nazio Batuen 1949ko Hitzarmenak, pertsonen salerosketa zigortzeari eta inoren prostituzioa esplotatzeari buruzkoak, azaldu zuen «prostituzioa eta horren ondorio okerra, pertsonen salerosketa prostituzio helburuetarako, bateraezinak direla gizakien duintasun eta balioarekin eta arriskuan jartzen dutela norbanakoen, familiaren eta erkidegoaren ongizatea»⁵⁹.

Palermoko Protokoloa aldarrikatu arte, gizakien salerosketaren esparruan arreta handia prestatu zaio prostituzioari, albo batera utziz gizakien beste esplotazio erak eta, prostituzioarekin batera, gizakien salerosketaren helburu izan daitezkeenak. Aitzitik, Palermoko Protokoloak definizioa zabaltzean, Nazioarteko Erkidegoaren ikuspuntua ere zabaltzen hasi da. Pixkanaka ikuspuntu hau aldatzen doan arren, oraindik, sexu esplotazioa (eta, bereziki, prostituzioa) helburutzat duen gizakien salerosketa da interes gehien sortzen duena.

Hau esanda, garrantzitsua da funtsezko bi ideia azpimarratzea.

Alde batetik, gizakien salerosketaren xedea biktima prostituzioan esplotatzea izan badaiteke ere, fenomenoak beste hainbat helburu ere barne hartzen ditu. Hori dela eta, ez da zentzuzkoa gizakien salerosketaren hedadura murriztea eta prostituzioarekin zuzenean lotzea.

Bestalde, prostituzioa ez da beti gizakien salerosketarekin lotu behar. Hau da, pertsona bat prostituzioan esplotatua izan denean, egitate horrek ez du zertan esan nahi aurretik gizakien salerosketa gertatu denik; bestera esanda, sexu esplotazio kasu guztiak ez dira gizakien salerosketaren pro-

⁵⁹ Atariko (Itzulpena: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea).

zesuaren emaitza. Ondorioz, bi fenomenoak lotu ahal izateko, frogatu beharko da aurretiaz gizakien salerosketaren prozesua gertatu dela eta horren azken helburua praktikan gauzatu dela.

4. Gizakien salerosketa eta Esklabotza

Egun, gizakien salerosketari buruz mintzatzean, asko dira «XXI. mendeko esklabotza» esamoldea erabiltzen duten autoreak⁶⁰. Antza denez, esamolde honek aditzera ematen du gizakien salerosketa esklabotza mota jakin bat dela. Aitzitik, atal honetan argitu nahi dugu gizakien salerosketa eta esklabotza ez direla sinonimoak edo egitate berdinak eta, arrazoi horretan oinarrituta, bi fenomenoak bereiztea nahitaezkoa dela.

Hasteko, esan behar da, gizakien salerosketak eta esklabotzak lotura bat izan dezaketela praktikan, baina horrek ez du esan nahi fenomeno berdina direnik⁶¹.

Ikuspuntu historikotik, 1926ko Esklabotzari buruzko Hitzarmenak bi fenomenoak bereizi zituen. Hain zuzen ere, Hitzarmenaren ondorioetarako, «esklabotza norbanako baten egoera edo baldintza da; norbanako horren gainean jabetza eskubidearen ezaugarriak, guztira edo atalka egikaritzen direla»⁶² eta «esklabotzen salerosketak honako egintzak biltzen ditu: norbanakoa antzematea, eskuratzea edo ematea, saltzeko edo trukatzeko asmoz; bide beretik, xede horietarako eskuratutako esklaboa xe-

⁶⁰ Beste batzuen artean: LLORIA GARCÍA, P. «Trata de seres humanos», *op. cit.*, 293. or; MARTÍNEZ TEN, L. eta CORRAL, A.M. *La trata con fines de explotación sexual. Guía de formación para personal de la administración pública*. Madril: Instituto de la Mujer, Ministerio de Igualdad, 2010, 2. or; MARTOS NÚÑEZ, J.A. “El Delito de Trata de Seres Humanos: análisis del artículo 177 Bis del Código Penal”, *op. cit.*, 98. or.; SERRA CRISTÓBAL, R. eta LLORIA GARCÍA, P. *La trata sexual de mujeres. De la represión del delito a la tutela de la víctima*. Madril: Ministerio de Justicia (Secretaría General Técnica), 2007, 86. or.

⁶¹ Honen inguruan gomendagarria da kontsultatzea ALLAIN, J. «Genealogies of human trafficking and slavery», PIOTROWICZ, R., RIJKEN, C. eta HEIDE UHL, B. (Ed.). *Routledge Handbook of Human Trafficking*. New York: Routledge, 2017, 3-12. orr.

⁶² Hitzarmenaren 1.1. artikulua.

deok gauzatzeko lagatze-egintza oro eta, berebat, esklaboen salerosketa-eta garraio-egintza oro»⁶³. Areago, bereizketa hau hurrengo testu historikoetan ere antzeman daiteke: Esklabotza, Esklaboen Salerosketa eta Esklabotzaren antzeko erakundeak eta eginerak ezabatzeari buruzko Hitzarmen osagarrian, 1956ko apirilaren 30ekoa; Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 217 A (III) Ebazpenaren bitartez aldarrikatutakoa, 1948ko abenduaren 10ean; eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 2200 A (XXI) Ebazpenaren bitartez aldarrikatutakoa, 1966ko abenduaren 16an.

Ondorioz, XXI. mendeko testuinguruan, esan behar dugu bi fenomenoak bereizten jarraitu behar direla. Gizakien salerosketa pertsonaren esplotazioa helburutzat duen prozesua izanik, bere xedea, beste batzuen artean, pertsona esklabo bihurtzea izan daiteke (betiere, «esklabo» hitza gaur eguneko testuinguruan ulertuta). Kasu zehatz horretan, esklabotza gizakien salerosketaren ondorioa izango litzateke. Haatik, pertsona bat esklabo bihurtzeak ez du zertan esan nahi esplotazio egoera hori gizakien salerosketaren emaitza izan behar denik; izan ere, ondorio hori atera ahal izateko, frogatu beharko da aurretiaz gizakien salerosketa osatzen duten elementuak gertatu direla.

VI. ERAGIN-FAKTOREAK: ARAZOAREN JATORRIA

Orain arteko azalpenak aintzat hartuta, argi dago gizakien salerosketa mundu mailako arazo kezagarria dela eta, ondorioz, premiazko erantzun eraginkorrak behar dituela. Hori bai, gizakien salerosketari aurre egiteko neurriak zehaztu daitezten, lehenengo, fenomenoaren hedapena

⁶³ Hitzarmenaren 1.2. artikulua.

bultzatzen duten arrazoiak identifikatzea ezinbestekoa da. Izan ere, arrazoi hauetan aurkituko dugu problematikaren jatorria.

Hau esanda, atal honetan gizakien salerosketaren garapena sustatzen duten funtsezko faktoreak azpimarratzeari ekingo diogu.

Orokorrean, faktore hauek bi multzo nagusitan banatu ohi dira⁶⁴:

(a) Batetik, «bultzada faktoreak» bereizten dira. Arrazoi hauek leku jakin bateko biztanleak bultzatzen dituzte beste toki batera lekualdatzera. Oro har, faktore hauek etsipena edo desesperazioa sortzen dute gizartean eta, horregatik, biztanleak toki berri batera mugitzera bultzatzen dituzte, bertan bizi maila hobea lortzeko esperantzarekin. Bultzada faktoreen artean, hurrengoak dira esanguratsuenak: pobrezia (eta, bereziki, emakumeen pobrezia); hezkuntza falta; baliabideen gabezia; egoera politiko eta sozial ezegonkorra; gatazka armatuak; eta, hondamendi naturalak⁶⁵.

(b) Bestalde, «erakarpen faktoreak» ere identifikatzen dira. Zio hauek, bultzada faktoreak ez bezala, leku zehatz batek eskaintzen dituen aukera itxaropentsuei egiten diete erreferentzia. Bestera esanda, faktore hauek beste toki batzuetako biztanleak erakarri egiten dituzte, ordura arteko bizitza baztertzeko eta (ustez) aukera hobeak eskaintzen dituen tokira lekualdatzeko. Erakarpen faktore nagusiak langileen eskaera eta egoera politiko-sozial egonkorra izaten dira.

Bi faktore multzo hauekin batera, badaude gizakien salerosketaren garapenean eragin berezia duten beste arrazoi batzuk ere. Zehatz-mehatz, globalizazioak, antolatutako krimenak eta korrupzioak fenomenoaren hedapena modu nabarian sustatu dute⁶⁶.

⁶⁴ CULLEN-DUPONT, K. *Human Trafficking*. Nueva York: Facts on File, 2009, 23. or.

⁶⁵ DELAS, O. eta PLOUFFE-MALETTE, K. "La Convention du Conseil de l'Europe sur la lutte contre la traite des êtres humains face au droit de l'Union européenne". *Criminologie*, 2013, 1. zk. (46. bol.), 159. or.

⁶⁶ SHELLEY, L. *Human Trafficking. A global perspective*. Nueva York: Cambridge University Press, 2010, 37.or.

Globalizazio prozesuak, beste ekarpen batzuen artean, merkatuen eta merkataritzaren askatasuna bultzatu du; ekonomi lehia areagotu du; pertsonen arteko informazio eta komunikazio bideak bizkortu eta erraztu ditu; eta ondasunen, kapitalen eta informazioaren zirkulazioa erraztu du. Berabat, globalizazioa dela eta, pertsonen mugimenduak biderkatu egin dira, batez ere, beste leku batean bizimodu hobea lortzeko helburuarekin. Alabaina, testuinguru honetan, pertsonen legezko mugimenduek geroz eta traba gehiago jasaten ari dituzte; ondorioz, pertsonen zirkulazioa beste bide batzuen bitartez burutzeari ekin zaio. Inguruabar hauek direla medio, globalizazioak gizakien salerosketaren hazieran eragin argia izan du⁶⁷.

Mundializazio edo globalizazio fenomenoaren parean, antolatutako krimenaren protagonismoa ere aintzat hartu behar da gizakien salerosketaren hedapenaren arrazoiaren artean. Bada, antolatutako taldeek geroz eta botere handiagoa lortzen ari dira nazioarte-mailan eta, zehazki, gizakien salerosketaren esparruan. Zalantzarik gabe, fenomeno hau oso errentagarria da talde kriminalentzat, inbertsio txikia eginez irabazi handiak lortzen dituztelako⁶⁸.

Guzti honekin batera, ezin ahantz daiteke korrupzioak (bai arlo publikoan, bai arlo pribatuan garatutakoak) gizakien salerosketaren garapena erabat pizten duela⁶⁹. Esan daiteke, beraz, bi fenomeno hauek estu lotuta daudela.

⁶⁷ Gai honen inguruan, kontsultatu daiteke: PÉREZ ALONSO, E.J. «Consideraciones político-criminales sobre el fenómeno migratorio actual y el Tráfico de personas», CORCOY BIDASOLO, M. eta MIR PUIG, S. (Dirs.). *Protección penal de los derechos de los trabajadores. Seguridad en el trabajo, tráfico ilegal de personas e inmigración clandestina*. Madril: Edisofer, 2009, 413. or.

⁶⁸ BALES, K. *New Slavery*. Santa Barbara (Kalifornia): ABC-CLIO, 2000, 25. or. eta VAN DIJK, F.H. eta VONK, P.A. «The European efforts in combating human trafficking for the purpose of labour exploitation; on milestones, migration, Member States and mutual assistance», RIJKEN, C. (Ed.). *Combating Trafficking in Human Beings for Labour Exploitation*. Nijmegen: Wolf Legal Publishers, 2011, 445. or.

⁶⁹ CULLEN-DUPONT, K. *Human Trafficking*, op. cit., 28. or.

VII. ONDORIOAK: FENOMENOARI AURRE EGITEKO ILDO NAGUSIAK

Aurreko ataletan aztertu den informazioa aintzat hartuta, eta azalpenarekin amaitzeko, jarraian ondoriorik esanguratsuenak nabarmenduko ditugu. Zerrenda honen bitartez, gizakien salerosketari aurre egiteko norabide edo oinarri nagusiak islatu nahi ditugu.

Lehenengoa. Gizakien salerosketa mundu-mailan eragina duen fenomeno arriskutsua da, horregatik, lehentasunezko gaia izan behar da bai Estatuetako politiketan bai eta Nazioarteko Erkidegoaren eginkizunetan.

Bigarrena. Fenomeno honek oinarrizko giza eskubideen kontrako eraso bortitza suposatzen duen heinean, berori erazteko premia dago. Helburu hori lortzeko, tresna juridiko eraginkorrak garatu behar dira eta koordinazio lanak bultzatu behar dira. Dena den, erabaki hauek benetan sinesgarriak izateko, ezinbestekoa da beroriek praktikan gauzatzea eta berorien eboluzioaren inguruan segimendu lanak garatzea.

Hirugarrena. Delitu hau geldiarazteko, nahitaezkoa da gizarteak horren esanahia eta norainokoa ezagutzea, ezjakintasuna baita gizakien salerosketaren aurrean itsutzen gaituenak eta fenomenoak ikusezin bihurtzen duenak. Hori dela eta, gizakien salerosketaren esangura ulertzeko, beharrezkoa da nazioarte-mailako definizio bateratua zehaztea. Bada, gizakien salerosketa fenomeno globala den heinean, ez da zentzuzkoa horren ezaugarrien inguruan interpretazio desberdinak egotea leku batetik bestera. Behin definizio unibertsala onetsita, hori ezagutzera eman behar da munduko txoko guztietan, fenomenoaren presentziaren eta arriskuen inguruan kontzientzia sendoa sortu ahal izateko.

Laugarrena. Gizakien salerosketa fenomeno konplexua da; zehatz-mehatz, izaera desberdineko elementuek osatzen duten prozesua da eta prozesu honek bilatzen duena pertsonaren esplotazioa da. Helburu hau zentzu zabalean ulertu behar da; hau da, ezin da prostituzioarekin eta sexu esplo-

tazioarekin bakarrik lotu. Urteetan zehar, sexu esplotazioa helburutzat duen gizakien salerosketa izan da gobernuen, legegileen, ikertzaileen eta erakunde sozialen kezka, xede desberdinak bilatzen dituen gizakien salerosketa baztertuz. Zentzu honetan, argi geratu behar da gizakien salerosketak, orokorrean, pertsonaren esplotazioa bilatzen duela eta esplotazio hori edozein izaera izan dezakeela. Labur-zurrean esanda, gizakien salerosketaren eta sexu esplotazioaren arteko ohiko lotura gainditzea beharrezkoa da.

Bosgarrena. Sarri askotan, gizakien salerosketa beste fenomeno batzuekin nahasten da, bai beraren benetako esangura argi ez dagoelako bai eta beste fenomenoekin mantentzen dituen antzekotasunek bereizketa egitea eragozten dutelako. Zalantzarik gabe, nahasketa hauek gizakien salerosketa saihesteko eta ikertzeko lanak oztokatzen dituzte. Hortaz, oso garrantzitsua da, ezer baino lehen, gizakien salerosketaren esanahia eta norainokoa argitasunez definitzea eta ezagutzera ematea; izan ere, oinarri sendo honetatik abiatuta, errazagoa izango da gizakien salerosketa beste fenomenoengandik bereiztea.

Seigarrena. Gizakien salerosketaren existentzia faktore desberdinetan oinarritzen da. Azken batean, praktika hau erauzteko nahitaezkoa da beraren garapena bultzatzen duten arrazoiak arretaz aztertzea eta ikeretzea, zio hauetan aurkitzen delako gizakien salerosketaren euskarria.

VIII. BIBLIOGRAFIA

ALLAIN, J. «Genealogies of human trafficking and slavery», PIOTROWICZ, R., RIJKEN, C. eta HEIDE UHL, B. (Ed.). *Routledge Handbook of Human Trafficking*. New York: Routledge, 2017.

ARRIETA IDIAKEZ, F.J., MANRIQUE LÓPEZ, F. eta MANRIQUE ROJO, F. «Combating trafficking in human beings for labour exploitation in Spain», RIJKEN, C. (Ed.). *Combating Trafficking in Human Beings for Labour Exploitation*. Nijmegen: Wolf Legal Publishers, 2011.

ASÍN CABRERA, M.A. «La inmigración irregular en la investigación jurídica», GODENAU, D. eta ZAPATA HERNÁNDEZ, V.M. (Koord.). *La inmigración irregular. Aproximación multidisciplinar*. Tenerife: Área de Desarrollo Económico, 2005.

BALES, K. *New Slavery*. Santa Barbara (Kalifornia): ABC-CLIO, 2000.

BATSUKOVA, S. “Human Trafficking and Human Smuggling: similar nature, different concepts”. *Studies of Changing Societies: Comparative and Interdisciplinary Focus*, 2012, 1. zk (1. bol.).

BENÍTEZ ORTÚZAR, I.F. «Trata de seres humanos», MORILLAS CUEVA, L. (Koord.). *Sistema de Derecho Penal Español. Parte Especial*. Madrid: Dykinson, 2011.

BOLDOVA PASAMAR, M.A. (Zuz.). “Trata de seres humanos, en especial menores”. *Revista de Derecho Migratorio y Extranjería*, 2010, 23. zk.

CONDE-PUMPIDO TOURÓN, C. eta CRESPO BARQUERO, P. «Título VII Bis. De la trata de seres humanos», CONDE-PUMPIDO FERREIRO, C. (Zuz.). *Código Penal Comentado. Con concordancias y jurisprudencia. Actualizado a la LO 5/2010 de 23 de junio de 2010. Tomo I. Arts. 1 al 318 bis*. Barcelona: Bosch, 2012, Hirugarren Argitalpena.

CORCOY BIDASOLO, M. eta MIR PUIG, S. «Título VII Bis. De la Trata de Seres Humanos», CORCOY BIDASOLO, M. eta MIR PUIG, S. (Zuz.). *Comentarios al Código Penal. Reforma LO 5/2010*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2011.

CUGAT MAURI, M. «La trata de seres humanos: la universalización del tráfico de personas y su disociación de las conductas infractoras de la política migratoria (arts. 177 bis, 313, 318 bis)», QUINTERO OLIVARES, G. (Zuz.). *La Reforma Penal de 2010: Análisis y Comentarios*. Zizur Txikia: Civitas-Thomson Reuters, 2010.

CULLEN-DUPONT, K. *Human Trafficking*. Nueva York: Facts on File, 2009.

DAUNIS RODRÍGUEZ, A. *El derecho penal como herramienta de la política migratoria*. Granada: Comares, 2009.

—*El delito de trata de seres humanos*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2013.

DE LA CUESTA ARZAMENDI, J.L. «Tráfico y trata de seres humanos: regulación internacional y europea», RICHARD GONZÁLEZ, M., RIAÑO BRUN, I. eta

- POELEMANS, M. (Koord.). *Estudios sobre la lucha contra la trata de seres humanos*. Zizur Txikia: Thomson Reuters-Aranzadi, 2013.
- DE LEÓN VILLALBA, F.J. *Tráfico de personas e inmigración ilegal*. Valentzia: Tirant Lo Blanch, 2003.
- DE VICENTE MARTÍNEZ, R. «Título VII Bis. De la Trata de Seres Humanos», GÓMEZ TOMILLO, M. (Zuz.). *Comentarios al Código Penal*. Valladolid: Lex Nova, 2011, Bigarren Argitalpena.
- DEL VALLE GÁLVEZ, A. «El frágil estatuto internacional y europeo del inmigrante irregular», DEL VALLE GÁLVEZ, A. eta ACOSTA SÁNCHEZ, M.A. (Ed.). *Inmigración Irregular y Derecho. VIII Jornadas Autonómicas de Derecho Internacional Humanitario*. Cádiz: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Cádiz, 2005.
- DELAS, O. eta PLOUFFE-MALETTE, K. “La Convention du Conseil de l Europe sur la lutte contre la traite des êtres humains face au droit de l Union européenne”. *Criminologie*, 2013, 1. zk. (46. bol.).
- EDWARDS, A. “Traffic in human beings: at the intersection of Criminal Justice, Human Rights, Asylum/Migration and Labor”. *Denver Journal of International Law and Policy*, 2008, 1. zk. (36. bol.).
- GALLAGUER, A.T. *The International Law of Human Trafficking*. Nueva York: Cambridge University Press, 2010.
- GARCÍA ARÁN, M. «Introducción», GARCÍA ARÁN, M. (Koord.). *Trata de personas y explotación sexual*. Granada: Comares, 2006.
- GARCÍA SEDANO, T. “El tipo de trata de seres humanos”. *La ley penal*, 2014, 109. Zk.
- GARCÍA VÁZQUEZ, S. “Inmigración ilegal y trata de personas en la Unión Europea: la desprotección de las víctimas”. *Revista de Derecho Constitucional europeo*, 2008, 10. zk.
- GUARDIOLA LAGO, M.J. *El tráfico de personas en el Derecho Penal Español*. Zizur Txikia: Aranzadi, 2007.
- GUTIÉRREZ SELLER, A. “Tráfico de personas para la explotación laboral”. *Crítica*, 2006, 940. zk. (56. urtea).

HJARNO, J. *Illegal Immigrants and Developments in Employment in the Labour Markets of the EU*. Hampshire: Ashgate, 2003.

JIMENEZ, E. «La distinction problématique entre la traite des personnes et le trafic de migrants risque de laisser sans protection les victimes de la traite», CLAUDE, M., LAVIOLETTE, N. eta POULIN, R. *Prostitution et Traite des Êtres Humains. Enjeux nationaux et internationaux*. Ottawa: Les Éditions L Interligne, 2008.

JORDAN, B. eta DÜVELL, F. *Irregular Migration. The Dilemmas of Transnational Mobility*. Cheltenham: Edward Elgar, 2002.

KLEEMANS, E. eta VAN DE BUNT, H.G. «The social organisation of Human Trafficking», SIEGEL, D., VAN DE BUNT, K. y ZAITCH, D. (Ed.). *Global Organized Crime: Trends and Developments*. Dordrecht/Boston/London: Kluwer Academic Publishers, 2003.

LLORIA GARCÍA, P. «Trata de Seres Humanos», BOIX REIG, J. (Zuz.). *Derecho Penal. Parte Especial. Volumen I. La protección penal de los intereses jurídicos personales (Adaptado a las reformas de 2010 del Código Penal)*. Madril: Iustel, 2010.

LÓPEZ RODRÍGUEZ, J. *Conceptualización jurídica de la trata de seres humanos con fines de explotación laboral*. Zizur Txikia: Thomson Reuters-Aranzadi, 2016.

MARAVAR GÓMEZ, M. «La Trata de Seres Humanos», DÍAZ-MAROTO Y VILLAREJO, J. (Zuz.). *Estudios sobre las Reformas del Código Penal operadas por las LO 5/2010, de 22 de junio, y 3/2011, de 28 de enero*. Zizur Txikia: Civitas-Thomson Reuters, 2011.

MARTÍNEZ TEN, L. eta CORRAL, A.M. *La trata con fines de explotación sexual. Guía de formación para personal de la administración pública*. Madril: Instituto de la Mujer, Ministerio de Igualdad, 2010.

MARTOS NUÑEZ, J.A. «El delito de Trata de Seres Humanos: análisis del artículo 177 bis del Código Penal». *Estudios penales y criminológicos*, 2012, 32. zk.

MUÑOZ CONDE, F. *Derecho Penal. Parte Especial*. Valentzia: Tirant Lo Blanch, 2010, Hemezortzigarren Argitalpena.

OBOOKATA, T. «A human Rights Framework to address trafficking of human beings». *Netherlands quarterly of Human Rights*, 2006, 3. zk. (24. bol.).

OTTENHOF, R. "Traite des personnes et criminalité organisée au plan Européen et International". *Eguzkilore: Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*, 2003, 17. zk.

PÉREZ ALONSO, E. J. *Tráfico de personas e inmigración clandestina (un estudio sociológico, internacional y jurídico-penal)*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2008.

PÉREZ ALONSO, E. J. «Consideraciones político-criminales sobre el fenómeno migratorio actual y el Tráfico de personas», CORCOY BIDASOLO, M. eta MIR PUIG, S. (Dir.). *Protección penal de los derechos de los trabajadores. Seguridad en el trabajo, tráfico ilegal de personas e inmigración clandestina*. Madril: Edisofer, 2009.

PÉREZ CEPEDA, A. I. *Globalización, tráfico internacional ilícito de personas y derecho penal*. Granada: Comares, 2004.

PIOTROWICZ, R. «Human security and trafficking of human beings: the myth and the reality», EDWARDS, A. y FERSTMAN, C. (Ed.). *Human Security and Non-Citizens. Law, Policy and International Affairs*. Cambridge: Cambridge University Press, 2010.

POMARES CINTAS, E. «El delito de trata de seres humanos», ÁLVAREZ GARCÍA, F. J. (Zuz.). *Derecho Penal Español. Parte Especial (I)*. Valentzia: Tirant Lo Blanch, 2011, Bigarren Argitalpena.

REPETSKAIA, A. «Classifying the Elements of Human Trafficking Crimes», STOECKER, S. eta SHELLEY, S. (Ed.). *Human Traffic and Transnational Crime. Eurasian and American Perspectives*. Lanham: Rowman & Littlefield Publishers, Inc., 2002.

RIJKEN, C. *Trafficking in persons. Prosecution from a European Perspective*. Haga: T.M.C. Asser Press, 2003.

RODRÍGUEZ FERNÁNDEZ, I. «Capítulo 4. Trata de Personas», ORTIZ DE URBINA GIMENO, I. (Koord.). *Memento Experto. Reforma Penal 2010. Ley Orgánica 5/2010*. Madril: Francis Lefebvre, 2010.

SANTANA VEGA, D. «Título VII Bis. De la trata de seres humanos», CORCOY BIDASOLO, M. eta MIR PUIG, S. (Zuz.). *Comentarios al Código Penal. Reforma LO 1/205 y LO 2/2015*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2015.

SCARPA, S. *Trafficking in human beings: modern slavery*. Nueva York: Oxford University Press, 2008, 68.

SERRA CRISTÓBAL, R. eta LLORIA GARCÍA, P. *La trata sexual de mujeres. De la represión del delito a la tutela de la víctima*. Madrid: Ministerio de Justicia (Secretaría General Técnica), 2007.

SHELLEY, L. *Human Trafficking. A global perspective*. Nueva York: Cambridge University Press, 2010.

—«Human trafficking as a form of transnational crime», LEE, M. (Ed.). *Human Trafficking*. Oregon: Willan Publishing, 2010.

STARING, R. «Smuggling aliens Toward the Netherlands: the role of human smugglers and transnational networks», SIEGEL, D., VAN DE BUNT, K. eta ZAITCH, D. (Ed.). *Global Organized Crime: Trends and Developments*. Dordrecht/Boston/London: Kluwer Academic Publishers, 2003.

SUÁREZ-MIRA RODRÍGUEZ, C. (Koord.). *Manual de Derecho Penal. Tomo II. Parte Especial*. Zizur Txikia: Civitas-Thomson Reuters, 2011, Seigarren Argitalpena.

TERRADILLOS BASOCO, J.M. «Trata de Seres Humanos», ÁLVAREZ GARCÍA, F.J. eta GONZÁLEZ CUSSAC, J.L. *Comentarios a la Reforma Penal de 2010*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2010.

UN.GIFT. GLOBAL INITIATIVE TO FIGHT HUMAN TRAFFICKING. «Human Trafficking: The Facts». Ikusi: http://www.unglobalcompact.org/docs/issues_doc/labour/Forced_labour/HUMAN_TRAFFICKING_-_THE_FACTS_-_final.pdf.

UNODC. «Algunos datos relevantes sobre la Trata de Personas». Ikusi: https://www.unodc.org/documents/lpo-brazil//sobre-unodc/Fact_Sheet_Dados_Trafico_de_Pessoas_geral_ESP.pdf.

VAN DIJK, F.H. eta VONK, P.A. «The European efforts in combating human trafficking for the purpose of labour exploitation; on milestones, migration, Member States and mutual assistance», RIJKEN, C. (Ed.). *Combating Trafficking in Human Beings for Labour Exploitation*. Nijmegen: Wolf Legal Publishers, 2011.

VAZ CABRAL, G. *La traite des êtres humains: réalités de l'esclavage contemporain*. Paris: La Découverte, 2006.

VILLACAMPA ESTIARTE, C. *El delito de Trata de Seres Humanos. Una incriminación dictada desde el Derecho Internacional*. Zizur Txikia: Aranzadi, 2011.

—«Título VII Bis. De la Trata de Seres Humanos», QUINTERO OLIVARES, G. (Zuz.). *Comentarios a la Parte Especial del Derecho Penal*. Zizur Txikia: Aranzadi, 2011, Bederatzigarren Argitalpena.

WYLIE, G. eta MCREDMOND, P. «Introduction: Human Trafficking and Europe», WYLIE, G. eta MCREDMOND, P. (Ed.). *Human Trafficking in Europe. Character, Causes and Consequences*. Nueva York: Palgrave Macmillan, 2010.